

“Dibertsitateak problemak ebazteko beste ikuspuntu batzuk ematen ditu”

Ana Galarraga Aiestaran · Elhuyar Zientzia

Judit Muñoz Matute
Matematikaria



Judit Muñoz Matute

Bilbo, 1991.

- Matematikako gradua egin zuen EHUn, eta jarraian **Modelizazio eta Ikerkuntza Matematikoa, Estatistika eta Konputazioko masterra**.
- BCAMen aritu da lanean, baita atzerriko zentroetan ere: Polonia, AEB, Txile, Australia eta Britainia Handia.
- Orain, **tesia** egiten ari da.

Matematikak betidanik izan ditu gustuko Judit Muñoz Matutek. Dioenez, txikitatik zen ona zenbakiekin, eta problemak ebazten. Onartu du, hori bai, oso desberdinak direla unibertsitatera iritsi aurretik ikasten diren Matematikak eta gero han landu dituenak.

Ikaskideen generoari erreparatuta, bada datu esanguratsu bat: karreran, bi izan ezik, gainerako guztiak neskak ziren; orain, ordea, Ingeniaritzan dabil doktoretza egiten, Matematika aplikatuetan, eta oso emakume gutxi dira. "Irudipena dut Matematika ikasi duten emakume gehienak joaten direla Biologia, Medikuntza edo Estatistika arloetara, baina Ingeniaritzan ez da ohikoa".

Haren iritziz, onuragarria izango litzateke emakume gehiago egotea bere arloan: "Dibertsitatea beti da aberasgarria, bestelako ikuspuntuak azaltzen baitira. Nire taldean ere ni izan naiz lehen emakumea, baina, geroztik, emakume gehiago sartzen joan dira, eta orain, 9tik 4 emakumeak gara. Eta nabaritzen da".

Bere taldean, Matematika Aplikatuan lan egiten dute, batez ere geofisikan, uhin-hedapen problemetan. "Elkarlanerako aukera asko ematen ditu. Nik EHU-n egiten dut lan, baina lankide batzuk BCAM-en aritzen dira, eta Europako proiektu batean gaude, beste unibertsitate batzuekin elkarlanean, nazioarteko mailan. Eta enpresekin ere baditugu lankidetzak. Oso motibagarria da".

Horrekin batera, asko baloratzen du kongresuetara joateko eta atzerrian egonaldiak egiteko aukera izatea ere. Besteak beste, Australian izan zen zortzi

hilabetez lanean, eta aurtun Txilen izan da hilabetez. Orain, berriz, Texasen da, Oden Institutu ospetsuan.

Esklerosi anizkoitzarekin bizi eta ikertu

Esklerosi anizkoitza diagnostikatu zioten duela sei urte, Matematika karrerako azken urtean, baina, bistan denez, horregatik ez da geldirik geratu. Horrek ez du esan nahi, ordea, ez dionik eragin: "Hasieran, ikusmena galdu nuen begi batean, eta azterketetan nengoen. Izugarritzko mina nuen, oso gogorra izan zen. Ospitalean egon behar izan nuen... Hala ere, azterketak egin nituen eta guztiak gaintu nituen", gogoratu du.

Bere egoeran daudenak edo bestelako diagnostiko batzuk dituztenak ikerketa-taldeetan parte-hartzeak onurarik ekartzen ote duen galdetuta, baietz erantzun du: "Problemak ebazteko bestelako ikuspuntuak eman ditzakegula iruditzen zait. Besteen egoeraz jabetzeko eta enpatia lantzeko ere lagun-
garria da".

Ez da erraza, dena den. Bidaiatzeko, adibidez, izan ditu oztopoak, eta, Espainian, aseguruak ez dituzte gaixotasun kronikoa duten pertsonen larrialdiak estaltzen. Horrenbestez, Danimarkako aseguru bat kontratatu behar izan du.

Hala ere, itxaropenez begiratzen dio etorkizunari. Ezin du jakin agerraldi gehiago izango dituen ala ez, eta orain duen tratamendua ez da sendagarria, baina aurrera egiteko asmoa du. ●



**Elkarrizketa osoa
webgunean**



UPV/EHU Kultura
Zientifikoko Katedraren
lankidetzan egindako atala.